



**Zestau Baraibar,
Begoña**
(Tolosa, 1972)

Bego Zestau Baraibar. Leitzarra. Nire baitan dantzan, emozio-bizipen-sentsazioak... modu zintzoenean adierazten ditut olerkiez. Olerkia? Bizilagunik fidelena, nire sekretuak eza-gutu eta errespetatzen dituena.

Pablo Neruda, Lorca, Eduardo Galeano, ahizpa Ima, Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Luis Arbea Aranguren maitea... eta munduan barrena aurkitu dudan jende xumea batipat, nire inspirazio iturri.

XIMURRA XAMURRA

*Xuabea
Xarmanta
Jakintsua
Goxoa
Leuna*

*Kizkurtua
Ezaguna
Laztandua
Musukatua*

*Larrurako latz
Behatzetarako lardatz
Begietarako makats
Ezapinetarako mahats-zimur
Zimur mahats
Ikuiturako lakatz
Animarako aberats*

*50. urtean ageri
Jakinduriaren irudi
Baikortasunaren iturri
Maitagarritasunean ugari
Zure enbiditan aurkitu ni.*

